

# GIDATUTAKO UNIBERTSITATE DEBATEA: IKASKETA AKTIBO ETA KOOPERATIBOA ERRAZTEN DUEN JARDUERA

Ordu kopurua: 5

## Hartzaileak

Gidatutako Unibertsitate Debatea (GUD) irakaskuntza estrategia aktibo bezala ezagutzeko interesatuta dagoen irakaslego guztia.

## Sarrera / Ikastaroaren deskribapena

Ikastaro honen helburua Gidatutako Unibertsitate Debatea (GUD) ikasgelan aplikatu ahal izateko gaitasunak garatzea da. Horretarako, saioa bi zatiz osatuta egongo da; izaera teorikoa duena batetik eta izaera praktikoa duena bestetik. Lehenengoan, Gidatutako Unibertsitate Debatearen ezaugarriak azalduko dira. Bigarrenean, parte-hartzaileek ezagutza teorikoak debate ariketa batean aplikatuko dituzte.

## Ikastaroan lortzeko gaitasunak

- 1.- GUD-aren potentziala eta aplikagarritasuna ezagutu.
- 2.- GUD-aren faseak eta bakoitzean lantzen diren gaitasunak ezagutu.
- 3.- Ezagutza teorikoa debate ariketa batean aplikatu.
- 4.- GUD-a irakasle bakoitzaren egoerara egokitzeko brain-storming bat egitea (Gradu mota, maila, ikasle kopurua, erabilgarri dagoen denbora, irakasgaiaren helburuak etab).

## Edukiak

- Aurrekari batzuk
  - Ezaugarri orokorrak eta lortzeko oinarrizko gaitasunak
  - GUDaren inguruko ikerketak
  - Erizaintzako ikasgelako adibide baten ikuste eta analisisa
- GUD-aren inplementazioaren ariketa praktikoa
- Itxiera
  - Feedback-a eta ikasketa esperientzia propioaren hausnarketa
  - GUD-ak dituen egokitzapen aukeren analisisa

## Ebaluazioa / Akreditazioa

Akreditazioa eskuratzeko kurtsoaren zati teorikora joan beharko da eta debatearen ariketetan modu aktiboan parte hartu.

## **Datuak**

### **Iraupena**

5 ordu

### **Datak**

Urtarrilak 10

### **Ordutegia**

9.30-14.30

### **Lekua**

Donostia

### **Partaide kopurua**

Gehienez 16

### **Hizkuntza**

Euskaraz

### **Campus**

Gipuzkoa

### **Irakaslea**

Marta Arrue Mauleon (UPV/EHU)

### **Izena emateko baldintzak**

Izen-ematea Langileen Atariaren bidez egingo da. Plaza kopurua mugatua denez, I mailako kontratua duten irakasleen izango dute lehentasuna. Horrez gain, parte hartzaileen hautaketa izen-emate ordenaren, hautaketa lehentasunaren eta kanpusaren arabera izango da.

**Oharra: Ordenagailu eramangarria eramatea eta puntualtasuna eskatzen zaie bertaratutakoei.**

### **Matrikula baliogabetzea**

Lantegian izena eman eta onartua izan den norbaitek ezin izango balu bertara joan, 72 ordu aurretik jakinaraz dezan eskatzen diogu, sortutako hutsunea kanpoan geratu den beste pertsona bati eskaintzeko. Horrela egiten ez duenak ezin izango du parte hartu hurrengo UIPRE deialdian.